



Hezkuntza komunitateko kide agurgarriok:

Azken asteotan, mundu mailako ezohiko egoera berri baten aurrean gaude guztiok, COVID-19 eragiten ari den pandemiaren aurrean, hain zuzen ere. Horren aurrean erabaki garrantzitsuak hartzea egokitu zaigu, eta, batez ere, guztion erantzunkidetasuna, lankidetzeta eta laguntza eskatzea.

Lerro hauen bidez, zinez eskertu nahi dizuet egun hauetan gure hezkuntza-sistemaren alde egiten ari zareten ahalegina. Orain, inoiz baino gehiago, agerian geratzen da gure komunitatea milaka pertsona konprometituk osatzen dutela.

Pairatzen ari garen osasun-krisi larriak salbuespenezko neurriak hartzera behartzen gaitu, gure ikasleak beste modu batean hezteko erronkari heltzera. Hori da gure ardura, gure haur eta gazteen heziketari jarraipena ematea bermatuz. Ikasleak, irakasleak zein hezkuntza-komunitateko gainerako kideak ohituta geunden eguneroko errutinak laster itzuliko dira. Baina ordura arte, errealitate honetara egokitu behar dugu.

Neurri handi batean, teknologiak lagun ditugu. Baina ezer gutxirako balioko lukete horiek guztiek, milaka eta milaka ikaslek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea lehenesten duen giza taldearen konpromisorik gabe. Beharrezkoa da gure ikasleek beren hezkuntza-prozesuan aurrera egiten jarraitzea; eta uler dezaten, ikastetxera edo institutura joan ez arren, eskolak irekita jarraitzen duela, komunikazio-bideak irekita dituztela, bakoitzak bere aukeren arabera. Jakin dezala ikasleak, pantailaren beste aldean, edo aitak edo amak ikastetxean jaso dizkion ariketen atzean, irakasle bat dagoela, arduratzen den hezkuntza-profesional bat. Eta salbuespenezko egoera hau amaitzen denean, etxean egindako lana bere ohiko ikasgelan gertatu izan balitz bezala baloratuko dela. Irakaskuntza, hezkuntza, ezin delako gelditu.

Hezkuntza guztion artean zaindu eta bultzatu beharreko altxorra dugu. Milaka familia dira zuen konpromisoaren eta eginahalaren lekuko; zuen ikasleei -haien seme-alabei- eskatzen diezuen ahaleginaren lekuko.

Laster ikasgela fisikoetara itzuli ahal izatea espero dut. Ordura arte, gure gizartearen mesedetan egiten ari zareten ahalegin handiagatik estimua eta esker ona helarazi nahi nizkizueke.

Eskerrik asko,

Cristina Uriarte
Hezkuntza sailburua

